

3. ATALA: FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure bazkide garrantzitsuenak hornitzaileak izango dira, hau da, lehengaiak ekartzen dizkigutenak. Hornitzaile horien artean aurkitzen dira:

- Pasteland
- La Grana
- TodoFrutosSecos
- SoloStocks
- Distribuciones Plata Granada S.L
- LaTiendaVichy
- Olibaza
- Izarbide



Hauetatik garrantzitsuenak lehengai erabilienak hornitzen dizkigutenak izango dira, irina ekartzen digutenak hain zuzen ere. Hornitzaileekin dugun akordioa ahalik eta onena izateko aliantza estrategiko batzuk ezarri beharko ditugu. Lehengai berak eskuratzeko bi hornitzaile ezberdin edukiko ditugu. Horrela, hornitzaile batek ez badu guk eskatutako eginkizuna behar bezala betetzen beste hornitzaile bat izango dugu kontratatuta. Horretaz gain, argi utziko dugu lehengai bakoitzetik zenbateko kantitatea behar dugun, baita prezioa ere. Jakina, beraien lana behar bezala betetzen badute, denbora luzerako kontratu bat egingo genuke. Epe luzeko kontratu hori kontuan hartuta, guk zenbat eta lehengai gehiago erosi orduan eta prezio merkeagoa eskaintzea proposatuko genieke. Horrela, beraiak ere bezero bat bermatuko lukete. Aldiz, beraien eginkizuna ez badute behar bezala betetzen, kontratua bertan behera utzi eta beste hornitzaile batzuegana joko genuke.